## El Compositor



Manuel del Pópulo Vicente García es, sin lugar a dudas, uno de los músicos más talentosos que España jamás haya producido. Fue uno de los tenores más célebres de la historia de la ópera, el tenor por el que Rossini escribió su archiconocido Barbero de Sevilla.

Era también compositor, pionero de la ópera en los Estados Unidos, un gran profesor de canto y padre de toda una dinastía de cantantes: Manuel Patricio García, barítono, inventor del laringoscopio, instrumento médico que sirve para examinar la glotis y las cuerdas vocales, maestro de canto y autor de un Tratado de canto en el que transmitía la técnica vocal de su padre y que, aún en nuestros días, está considerado como una referencia; Maria Malibrán, una de las más excitantes *prime donne* de los años 1820 y 1830; y Pauline Viardot-García, cantante, maestra y compositora.

Nació en Sevilla en 1775, en una familia pobre, su padre era zapatero, y se formó musicalmente con Antonio Ripa y Juan Almarcha en la iglesia colegial del Salvador.
Inició su carrera en Cádiz para trasladarse después a Madrid donde compone una de sus obras más célebres, la ópera *El poeta calculista* (1805), con la que sembraría un gran éxito años después en París, donde vive de 1807 a 1810. Nunca volvería a España. Posteriormente vive en Italia hasta 1816 donde perfecciona su técnica vocal y estrena *Il califfo di Bagdad* en el Teatro San Carlo de Nápoles, una de las óperas más aplaudidas de García.

Son varios los papeles por los que se le recuerda: el Conde de Almaviva y el Otelo de las óperas de Rossini, y el don Giovanni de Mozart, extendiendo su fama como estrella absoluta de la ópera. Viaja a Londres y, en 1825, se lanza hacia una nueva aventura en América, primero en Nueva York, pionero en introducir allí la ópera italiana y las óperas de Mozart, y luego en México donde, de regreso a París en 1829, pierde su fortuna de tantos años de trabajo al ser asaltado por unos bandidos camino de Veracruz. Retirado de la escena y dedicado a la enseñanza y la composición, muere en 1832 siendo considerado, según pronunciaron los críticos de su época en su entierro, «el primer tenor de todas las Españas».

## Musikagilea

Manuel del Pópulo Vicente García Espainiak sekula emandako musikari dohaintsuetako bat da, zalantzarik gabe. Operaren historiako tenor ospetsuenetakoa izan zen, Rossinik beragatik idatzi zuen Sevillako Bizragina obra ezagun baino ezagunagoa.

Konpositorea ere izan zen, operaren aitzindaria Estatu Batuetan, kantu-irakasle aparta, eta abeslarien leinu bateko aita: Manuel Patricio García, baritonoa, laringoskopioaren asmatzailea, kantu-maisua eta kantuaren arteari buruz oraindik ere erreferentziatzat hartzen den tratatu baten egilea; María Malibrán, 1820ko eta 1830eko hamarkadetako *prime donne* kitzikagarrienetakoa; eta Pauline Viardot-García, abeslaria, andereñoa eta konpositorea.

Sevillan jaio zen, 1775ean, familia txiro batean (aita zapatagina zuen), eta Antonio Ripa eta Juan Almarcha izan zituen musika-irakasle, Salbatzailearen eskola-elizan. Cádizen hasi zuen lan-ibilbidea, eta handik Madrilera joan zen, non, 1805ean, *El poeta calculista* (Olerkari kalkulatzailea) konposatu zuen, bere lanik famatuenetako bat. Ondoren, 1807 eta 1810 bitartean, Parisen bizi izan zen. Ez zen sekula itzuli Espainiara. Frantziatik Italiara joan zen (1816ra arte), eta han ahots-teknika hobetu eta bere lanik txalotuenetako bat estreinatu zuen, *Il califfo di Bagdad* (Bagdadeko kalifa), Napolesko San Carlo Antzokian.

Hainbat papergatik da oroitua: Almaviva Kondea eta Otelo, Rossiniren operetakoak; eta Mozarten Don Giovanni. Guztiek areagotu zuten operaren esparruan zuen erabateko izarraren ospea. Londresen egon ostean, beste abentura bat hasi zuen Ameriketan, 1825ean. Lehenengo, New Yorken, opera italiarra eta Mozarten operak eraman zituen agertokietara, herrialdean lehenengoz; gero, Mexikon, hainbeste urtez lanean irabazitako aberastasun guztia galdu zuen, Veracruzera zihoala bidelapur batzuek lapurtu baitzioten. 1829an, Parisera itzuli zen, non, agertokietatik urrun, irakaskuntzan eta konposizio-lanean jardun zuen. 1832an zendu zen, «Espainia guztietako lehen tenorra» zelako aitortzaz, kritikariek bere hiletan esan zuten bezala.

# Il Finto Sordo

### ESTRENO ESTREINALDIA

**Estrenada en una velada privada en París c. 1831**
Parisen estreinatu zen, 1831 inguruan, jaialdi pribatu batean
**Estrenada en Madrid el 6 de mayo de 2019**
2019ko maiatzaren 6an estreinatu zen Madrilen
**Estrenada en Bilbao el 22 de mayo de 2019**
2019ko maiatzaren 22an estreinatua Bilbon

### DURACIÓN IRAUPENA: 90 min.

### REPRESENTACIONES EMANALDIAK

**Sesiones didácticas /** Saio didaktikoak**: 2020 Mayo /** Maiatzak 22, 23
**Sesión abierta al público /** Publikoarientzako saioa**: 2020 Mayo /** Maiatzak 22 (19:30)

### COPRODUCCIÓN KOPRODUKZIOA

ABAO BILBAO OPERA
FUNDACIÓN JUAN MARCH
Teatro de la Zarzuela

**www.abao.org**

José María Olabarri 2-4 bajo • 48013 Bilbao • Tel.: **944 355 100** • email: **abao@abao.org**

# Il Finto Sordo

## MANUEL GARCÍA

### ÓPERA BUFA DE SALÓN EN DOS ACTOS
BI EKITALDIKO ARETO-OPERA BUFOA



ESTRENO EN BILBAO
BILBON ESTREINALDIA

**FUNCIONES** EMANALDIAK
**2019 MAYO/MAIATZAK 22, 23**
**SALA BBK GRAN VÍA BILBAO**

#YoSoyABAO

ABAO BILBAO OPERA

# Il Finto Sordo

## Ficha Artística
## Fitxa artistikoa

**Dirección musical y piano /** Musika-zuzendaria eta pianista:
Rubén Fernández Aguirre
**Dirección de escena, escenografía /** Eszena- eszenografia- zuzendaria
Paco Azorín
**Iluminación /** Argiztapen
José Miguel Hueso y Paco Azorín
**Asistente dirección de escena /** Eszena-zuzendariaren laguntzailea:
Alex Larumbe*
**Vestuario /** Jantziak:
Juan Sebastián Domínguez
**Peluquería y maquillaje /** Ile-apainketa eta makillajea:
Sara Álvarez y Moisés Echevarría
**Regiduría /** Errejidorea:
David Izura

## Reparto
## Aktoreen zerrenda

**Carlotta:**
Cristina Toledo*, soprano / sopranoa
**Capitano:**
Francisco Fernández-Rueda*, tenor / tenorra
**Francuccio:**
Damián del Castillo, barítono / baritonoa
**Pagnacca:**
César San Martín, barítono / baritonoa
**Lisetta:**
Carol García, mezzosoprano / mezzosopranoa
**Pandolfo:**
Gerardo Bullón, barítono / baritonoa
**Lobby Boy:**
Riccardo Benfatto*, actor / aktorea

* Debuta en ABAO Bilbao Opera / ABAO Bilbao Operan debutatuko du

**ÓPERA BUFA DE SALÓN EN DOS ACTOS**

**Música** de Manuel García
**Libreto** de Manuel García (1831) basado en el de Gaetano Rossi (1805)
Revisión y traducción de Beatrice Binotti

Edición inédita de Teresa Radomski y James Radomski (San Bernardino, USA, 2017)
Manuscrito de la Bibliothéque National de France: MS 8382 (París)

**La acción se desarrolla a lo largo de varias horas en un alojamiento parisino.**

## Acto Primero

Francuccio, encargado de un alojamiento, canta su satisfacción por las delicias que le ofrece la vida y su gusto por las mujeres. En ese momento aparecen el señor Pagnacca, la joven Carlotta y el padre de esta, Pandolfo, que llegan para celebrar la boda entre los dos primeros. Carlotta y Pagnacca se saludan. La joven se muestra algo esquiva, pero Pagnacca se siente inmensamente feliz. Inmediatamente piden sus habitaciones y Pandolfo ordena una cena opulenta. Todos se retiran.

Al momento aparece el Capitano Belfiore, que pide habitación. El alojamiento está lleno y Francuccio no puede hospedarlo, pero el Capitano se resiste. Finalmente, Francuccio se da cuenta de que el militar está sordo. Regresan entonces Pagnacca, Carlota y Pandolfo, dispuestos a cenar. Desde ese momento se suceden una serie de malentendidos: el Capitano confunde a Pagnacca con un camarero; Pagnacca enfurece y es tranquilizado por Francuccio; el militar se enamora de Carlotta y se le declara con extravagantes argumentos. La acción confluye en el quinteto, donde todos los personajes expresan su situación anímica. Finalmente, Pagnacca recupera la calma y pide a Francuccio que prepare la cena mientras maldice al sordo. Sin embargo, Befiore decide asistir a la cena sin haber sido invitado, se disputa con Pagnacca el asiento junto a Carlotta y pide a la muchacha que cante una canción, despertando de nuevo la irritación de Pagnacca.

Al término de la cena, Pagnacca deja que Pandolfo y Carlotta se retiren y queda solo. Le pide a Francuccio que deje la llave de su habitación en la mesa, mientras reflexiona sobre la actitud de la mujer ante el matrimonio. De improviso, parece de nuevo el Capitano, que coge la llave de la habitación de Pagnacca. El acto termina con una escena a oscuras donde todos se van encontrando con Pagnacca, que grita enfurecido.

## Acto Segundo

Después de todo lo ocurrido, Francuccio revela su amor por Lisetta, la doncella de Carlotta, mientras aquella confiesa a su señora su intención de ayudarla en sus amores con el joven Capitano. La tensión entre el militar y Pagnacca crece y conduce a un enfrentamiento en el que se descubre que el Capitano no está realmente sordo. En este momento, Carlotta confiesa que está enamorada del Capitano y rechaza al señor Pagnacca, pese a que su padre había preparado este casamiento con un contrato que está casi cerrado.

Al cabo de un rato, el señor Pagnacca decide enfrentarse al militar con una espada mágica que le ofrece Francuccio: se trata un nuevo engaño para burlarse del ridículo pretendiente. Se produce entonces un incongruente duelo entre el Capitano y el señor Pagnacca, incapaz de recordar las palabras mágicas que convertirían a la espada en un arma implacable. Viéndose en peligro de muerte, Pagnacca termina aceptando su derrota en la lucha por el amor de Carlotta. En ese momento, el matrimonio entre el Capitano y Carlotta tiene el consentimiento de Pandolfo. La acción concluye con la alegre celebración de la boda de los jóvenes.

**BI EKITALDIKO ARETO-OPERA BUFOA**

Manuel Garcíaren **musika**
Manuel Garcíaren **libretoa** (1831), Gaetano Rossirenean (1805) oinarritua
Beatrice Binottik berrikusia eta itzulia

Teresa Radomskiren eta James Radomskiren edizio argitaragabea (San Bernardino, USA, 2017)
Frantziako Liburutegi Nazionaleko eskuizkribua: MS 8382 (Paris)

Ekintza zenbait orduan garatuko da, Parisko ostatu batean.

## Lehenengo ekitaldia

Francuccio, ostatu baten arduraduna, abesten ari da; izan ere, poz-pozik dago, bizitzak gozamen ugari eskaintzen dizkiolako eta emakumeak oso atsegin dituelako. Une horretan, Pagnacca jauna, Carlotta gaztea eta honen aita Pandolfo heldu dira, lehenengo bien arteko ezkontza ospatzeko. Carlottak eta Pagnaccak elkar agurtu dute. Neskatila muzin samar dago; Pagnacca, aldiz, oso zoriontsu. Berehala, beren logelak eskatu dituzte, eta Pandolfok afari oparoa agindu du. Guztiak joan dira.

Belfiore kapitaina agertu da orduan. Logela bat eskatu du, baina ostatua beteta dago eta Francucciok ezin dio ezer eskaini. Alabaina, kapitainak ez du alde egin nahi. Francuccio ohartu da militarra gor dagoela. Pagnacca, Carlota eta Pandolfo afaltzera itzuli dira, eta gaizki-ulertuak bata bestearen atzetik datoz: Belfiorek uste du Pagnacca zerbitzaria dela; Pagnacca haserre jarri da, eta Francucciok lasaitu egin behar izan du; militarra Carlottarekin maitemindu da, eta argudio bitxien bidez azaldu dizkio bere sentimenduak. Ekintzak boskotean egin du bat, eta pertsonaia bakoitzak bere gogo-aldartea adierazi du. Azkenik, Pagnaccak bere burua baretzea lortu du; afaria prestatzeko agindu dio Francucciori, eta gorraz gaizki esaka hasi da. Haatik, inork gonbidatu ez duen arren, kapitainak afarian parte hartzea erabaki du, eta Pagnaccarekin dabil lehian Carlottaren ondoan jesarri ahal izateko. Horrez gain, abesti bat kantatzeko eskatu dio emakume gazteari, eta, horren guztiaren ondorioz, Pagnacca berriz sumindu da.

Afaria bukatutakoan, Pandolfo eta Carlotta joan egin dira, eta Pagnacca bakarrik geratu da. Logelako giltza mahai gainean uzteko eskatu dio Francucciori, eta emakumeak ezkontza dela-eta duen jarreraz hausnartzen hasi da. Bat-batean, Belfiore berriz agertu da, eta Pagnaccaren logelako giltza hartu du. Ekitaldiaren azken eszenan, pertsonaia guztiek, ilunpean, Pagnaccarekin egin dute topo, zeina, sutan, oihuka hasi den.

## Bigarren ekitaldia

Gertatutako guztiaren ondoren, Francucciok adierazi du Lisettarekin maiteminduta dagoela, Carlottaren neskamearekin, hain zuzen. Carlottaren eta Belfioreren arteko harremanari dagokionez, Lisettak agindu dio bere andreari lagundu egingo diola. Militarraren eta Pagnaccaren arteko tentsioa hazi egin da; aurka egin diote elkarri, eta, horren ondorioz, agerian geratu da militarra ez dela gorra. Une horretan, Carlottak aitortu du Belfiore maite duela , eta ez duela Pagnacca jaunarekin ezkondu nahi, aitak dena prest eduki arren, horretarako kontratu ia gauzatu bat barne.

Handik tarte batera, Pagnacca jaunak erabaki du Francucciok eskaini dion ezpata magiko batez egingo diola aurre militarrari. Alta, beste amarru bat baino ez da ezkongai irrigarriari iseka egiteko. Pagnacca jaunak eta Belfiorek logikarik gabeko dueluari ekin diote; izan ere, lehenengoa ez da gai ezpata arma errukigabea bihurtzeko esan beharreko hitz magikoak gogoratzeko. Bere burua bizi-arriskuan ikusita, Pagnaccak porrota onartu du Carlottaren maitasuna lortzeko hasitako borrokan, eta Pandolfok baimena eman du kapitaina eta Carlotta ezkon daitezen. Hala, gazte bien arteko ezkontzaren ospakizun alaiak eman dio amaiera istorioari.